tonta



Jasone Osoro

narratiba

erein

Tonta

narratiba • 172

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2026ko azaroan

Azalaren eta liburuaren
diseinua eta maketazioa:
Asier Beltza
Egilearen argazkia:
Maider Egues
Azaleko argazkia:
Lübna Abdullah | Pexels
© Jasone Osoro Igartua
© EREIN. Donostia 2026
ISBN: 978-84-1093-153-4
L.G.: D 969-2026
EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus
Inprimatzailea: Gertu inprimategia
Zubillaga industrialdea, 9
20569 Oñati, Gipuzkoa
T 943 783 309
gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net

Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Tonta

Jasone Osoro Igartua

erein

Kokapen arraroa zeukan hotel abandonatu hark. Desertuz inguratua, bihurgunez jositako errepide zaildu batetik iristen zen bertara, eta kostaldeko herri txiki batetik 10 kilometrora zegoen. Ezagutu ezean, ia ezinezkoa zen haren berri izatea. Aitaren istripuaren ondorioz jasotako indemnizazioari esker erosi ahal izan zituen amak hotela eta bi animalia, Marilyn oiloa eta Ursula zerria. Baratze bat ere atondu genuen, negutegi eta guzti. Hantxe landatzen genituen barazkiak eta usain-belarrak.

Abuztuko egun hartan bero sapa egiten zuen. Ni igerilekua margotzen ari nintzen Regina iritsi zenean. Jeep beltz batetik jaitsi zen, zuriz jantzia, lepoko koloretsuekin, adats luze ilunak doi-doi estaltzen zituen uztai itxurako belarritako erraldoiak. Ezker eskuan, hatz erakuslean, kameu eder bat zeraman emakumezko baten irudiarekin. Patxadaz ibili zen igerilekuaren ertzera gerturatu arte. Igel bat zapaldu zuen baina ezer gertatu izan ez balitz bezala hitz egin zidan.

—Gela bat alokatu nahi nuke.

Esan ahal nion hotela oraindik itxita zegoela, baina bezeroen beharra neukan eta baiezkoa eman nion. Jeepera abiatu zenean ikusi nuen igela lehertuta, tripak azuleju gainean birrinduta. Ekipajearekin laguntzeko asmoz gerturatu nintzen; maletategia mihisez beteta zegoen. Regina pintorea zen.

Urrutian itsasoa ikusten zen eskaini nion gelatik. Hormak tulipa horixkadun paper berdez estalita zeuden. Ohe gainean, edredoi zuri bat. Parean, apain-mahaia. Sabaitik zintzilik, bentiladore bat. Bainugela propioa zuen kuartoak.

—Hotz egiten du hemen. Ez al dago berogailurik?

—Butanozko estufa bat daukat. Ekarriko dizut.

—Regina –eskua luzatuz aurkeztu zuen bere burua.

—Brigitte.

—Bardot bezala, orduan.

Leihotik begira utzi nuen iritsi berria, eta haren aurpegia zeinen ederra zen pentsatu nuen. Sublimea. Jaioberrien azal zuria. Tigre baten begi ia horiak. Andere-mahats gorri, bi ezpainak. Barre egitean, elutxak ateratzen zitzaizkion masailean.

Estufarekin itzuli nintzenean mihise baten aurrean eserita aurkitu nuen.

—Sartu aurretik atea jo. Beti.

—Barkatu.

Alde egitera nindoala deitu zidan.

—Bardot!

Halaxe esango zidan aurrerantzean, Bardot.

—Gustatu zait lekua. Oso posible da luze geratzea hemen. Isiltasuna behar dut.

Isiltasuna segundo bat ernaltzen.

—Eta modelo bat. Zu prest egongo al zinateke?

Proposamen hark beste arrakala bat irekiko zuen nire bizitzan.

Gauez lokartzea kosta egiten zitzaidan. Altxatu eta sukaldera joan nintzen. Yatecomo batzuk jan nituen *Mi vida con 300 kilos* ikusten nuen bitartean, eta telebista piztuta hartu nuen lo.

Goizean, burua labean sartuta nuela harrapatu ninduen Reginak.

—Inspiratzen?

—Barkatu?

—Ezer ez. Nire gauzak.

—Ondo egin al duzu lo?

—Ume bat entzun dut negarrez. Amesgaiztoren bat izango zen.

Txilio egin nuen oso fuerte, baina Regina ez zen ohartu, garrasia barrurantz izan zelako eta garbigailua zentrifugatzen ari zelako. Bizkotxo egin berria mahai gainean jarri nuen kafearekin batera.

—Bardot –kristalezko edalontzian kafea kulunka–, gaur hasiko gara lanean.

Ez nekien zer esan nahi zuen modeloarena egiteko kontu hark. Aita ondoan izan banu hari galdetuko nioke. Pedrok beti zeukan hitz egokia.

Aita.

Garai batean eskiatzeko pistak zeuden hotel batean egin zuen lan. Logelak garbitzen zituen, eta, askotan, bezeroek ahaztutako gauzak ekartzen zizkidan opari: musika entzuteko kasko txikiak, txikleak, Françoise Saganen *Bonjour tristesse*. Lixiba usaina izaten zuen beti, eta azazkal zurizuriak. Amak eta biok garai hartan izan genuen gertaera. Baina aurrerago kontatuko dut hori.

Negutegiko letxugak ureztatu, Marilynek jarritako pare bat arrautza batu eta Ursulari pentsua jarri nion. Goiz hartan, txoriak hegan baino trostan ari zirela iruditu zitzaidan. Zerua herdoiltzen hasitako burdin xaflaz estalita zegoen. Lixiba orbanak zituen tixerta jantzita nuen Reginak deitu zidanean. Atea jo nuen gelan sartu aurretik. Barruan hotz egiten zuen abuztuko eguerdi hartan.

Reginak dena prest zeukan: margoak, pintzelak, agoarrasa, likore botila bat. Mihise parean, sukaldeko taburete bat.

—Eseri.

Hori izan zen egin behar izan nuen guztia. Taburetean eserita egon. Ez nintzen ausartzen Reginari begiratzen. Edonora zuzentzen nituen begiak: oinetara, tulipanetara, lurrean eroritako olio poteetara, leihotik gora hazten ari zen pitzadurara. Sukar-ikara modukoa sentitu nuen orduan mokorrean. Altxatu beharra nuen, baina ez nuen egin. Belaunetan ere dardarizoa, oinetara jaisten ari zen sugandila.

Begiak lausotzen hasi zitzaizkidan, ahoa lehortzen eta eztarrian pauma batek ireki berri duen abaniko turkesa nabaritu nuen. Eztula luma bat bezala atera zitzaidan.

—Gaurkoz nahikoa.

Gelatik irten aurretik ikusi nuen Regina butano estufa pizten.

Lorazepam bat hartu nuen mesanotxeko kaxoitik eta kaxaren ondoan argazkia topatu nuen: aita, ama eta hirurok labanderia batean. Hirian bizi izan ginen garaikoa zen. Zakur hura gogoratzen nuen, nola jabearen oinetara etzana zegoen, nola sartu orduko begiratu gintuen, zuek-ezdakizue-benetako-maitasuna-zer-den esaten zuen begirada demasa. Zakur hark ez zekien zenbat maite genuen elkar. Ez zekien arropa garbigailuan biraka egon zen bitartean hirurak joan ginela barraketara, olibak jan genituela eta egunen batean hotel bat erosiko genuela erabaki. Maitasuna hura zen, planak egitea. Planak egitea maite duzun jendearekin. Planak egitea maite duzun jendearekin denbora luzez elkarrekin egoteko. Planak egitea nahi duzulako etxera itzultzen zarenean norbait egotea zain. Orain, Marilyn eta Ursulaz gain, Regina zegoen hotelean.

Argazkia kaxoitik atera eta pasilloan jarri nuen. Marko barroko eder-ederra zeukan, urre kolorekoa. Italiara joatea inoiz baino urgenteagoa egin zitzaidan.

Baina ni ez nintzen ia inoiz urruntzen hoteletik.

Azkena ama lurperatu zuten eguna izan zen. Txizalarriz, hilerri ondoko tabernan sartu nintzen. Bi gizon flako begira-begira. Barra atzean gizon lodi bat edalontzia trapu zikin batekin lehortzen. Zuzenean joan nintzen fondoan eskumatara zegoen atera. Bueltan, Spryte eskatu nuen. Lodiaren kamisetan *I love Salou* jartzen zuen. Flakoek alde egin zuten eta *I love Salou* eta neu bakarrik geratu ginen. Frijitu oliotsua zen gizonaren hatsa. Joan ahal ginen biltegira eta bertako garagardo kaxa gainean txortan egin genezakeen. Basati. Baina bi euro utzi nituen barran eta alde egin nuen ze, total, pentsatze hutsak kitzikatu ninduen eta egun hartan nahikoa zitzaidan hura. Gainera, ezin nuen ahaztu ama sexu gau basati baten ondorioz geratu zela haurdun.

Eta, batez ere, ezin nuen ahaztu ama erditzen hil zela. Tarteka irudia etortzen zitzaidan. Amaren aieneak. Madarikazioak. Malkoak. Minaren orroa. Ezintasuna makakorroka. Kakaren usaina. Odolaren zipriztina izter mamitsuetan. Bakardadea kaktus baten gisa espazioa urratzen. Ni amaren esku lodituei eusten. «Pasako da» esaten, amak bere burua leihotik botatzeko imintzioa egiten zuenean.

Azkenean jaio zen.

—Berriz gara hiru –esan zuen amak, begiak azkenekoz itxi aurretik. Ume hiltzailea orduan hasi zen negarrez. Nik 19 urte nituen.

Portxeko bonbilla aldatzen ari nintzela agertu zen Regina. Eskailera-begien artean eseri zen, beti jantzita zeramatzan parpailadun eskularruei begira, kameua ferekatuz.

—Jostorratza eta haria ba al dituzu, Bardot?

Bonbilla pizten zela konprobatu nuen eta sarrerako komodatik atera nuen jostotzara eskaini nion.

—Josten badakizu?

—Bai.

Eskularruak kendu gabe josi nizkion zuloak eta ordura arte izandako solasaldirik luzeen eta normalena izan genuen.

Gustuko janariez:
Behin katu bat jan nuen, untxia zelakoan.
Egunean sagar bat baino ez nuen jaten garai batean.

Umetako zauriez:
Asko ditut. Denak eskolan egin dizkidate.
Asko ditut. Asko eskolan egin ditut.

Kontsumitutako drogez:
Alkohola eta farmakoak.
Argaltzeko pilulak, txarrenak.

Traizioez:
Ez dut traizioa ezagutu.
Iritsiko zaizu. Mingarrienak, lagunenak dira.
Ez dut lagunik.
Hobe.

Bakarrik ez geratzeagatik mantendutako harreman toxikoez:

Ursula toxikoa al da?

Irakasle hark ere muralak egiten zituen eta Rivera abizena zeukan. Frida sentitzen nintzen.

Insomnioaz:
Bakardadeak jaten ematen dio.
Menopausiak ere bai.

Leungarririk gabe garbitutako arropaz.
Eskuz egindako xaboiaz.
Eguraldiaz.
Marina Abramovic-ez.
Igerilekuez.

—Igerilekua betetzeko asmoa al duzu?

—Bai. Apopiloek estimatuko dute.

—Eta esango banizu neuk ordainduko dizkizudala gela guztiak? Zenbat daude?

—Sei.

—Sei gelen hilabetekoa ordainduko dizut. Zuretzako lan gutxiago, eta niretzat lasaitasuna.

Isilik gelditu nintzen, baina hain zen ederra Regina, ohorea ere begitandu zitzaidan haren konpainia absolutua niretzat bakarrik izatea.

—Halere igerilekua beteko dut. Niri gustatzen zait.

Eskua eman nionean, kameleoi baten azal lakarra iruditu zitzaidan parpaila.

Furrunda karrankari batek esnatu ninduen goiz hartan. Mesanotxeko iratzargailuak 8:00ak markatzen zituen, baina gela guztiz ilun zegoen. Zarata leihotik zetorrela ohartuta, errezela erretiratu nuen. Izu-ikara hotz batek begi-ninia ebaki zidan beira estaltzen ehunka erle zeudela ikustean. Intsektu haiek guztiek kristal likatsuan itsatsita ziruditen. Hegoak beharrean, bale baten bi isats izango balituzte bezala, baldar eta elbarri mugitzen ziren airean.

Logela azpian sastrakak erretzen ari nintzela agertu zen Regina. Keak erregina uxatu zuen, zorionez, eta erle bakanen dantza galdua baino ez zen ikustatzen. Ganbara azpiko gela inguruan erle bat zirrikitu batean usnaka. Ez nintzen lasaitu alde egiten zuela ikusi arte.

—Egun on, Bardot. Bueltatxo bat ematera joan naiz. Begira zer utzi duen itsasoak mareabeheran.

Ikeako plastikozko poltsa urdin erraldoiaren barruan zeukana erakutsi zidan: puskatutako negutegi bateko zati bat, hibisko buket bat, ubarroi mottodun baten hegoa, lehorgailu kasko bat oin eta guzti, begirik gabeko portzelanazko kopin baten burua.

—Bodegoiak marraztea ere gustatzen zait. Gainera, hibisko tea prestatu dezakegu gero. Lasaigarria da, bihotzarentzat oso ona, sistema immunologikoa indartzen du… eta argaltzen laguntzen du.

Nire amak laxante modura erabili izan zuen hibiskoa, baina ez nion datu hori eman pintoreari.

—Nire ama ile-apaintzailea zen –kontatu zidan–. Zoriontsua nintzen ama lanean ikusten. Bezeroak mundialak ziren eta dena kontatzen zuten, den dena. Bazegoen bat,

Luisa, dementzia zuena eta bilobak eramaten zuena. Ez dut haren izena gogoratzen, baina begirada beldurgarria zeukan. Nik bezeroen erretratuak egiten nituen eta amak horman zintzilikatzen zituen. Hura izan zen nire lehen erakusketa-aretoa, amaren ileapaindegia. Luisaren bilobak nire marrazkiak goratzen zituen eta egunen batean artista handia izango nintzela errepikatzen zidan. Ni lotsagorritu egiten nintzen. Egun batean, Luisari tintea jarri berri ziotela, galdetu zidan ea benetako erakusketa bat ikusi nahi nuen. Ni museo batera inoiz joan gabea nintzen eta baimena eskatu nion amari. Ba al dakizu nora eraman ninduen? Mataderia batera. Dozenaka zerri eta txahal gorpu zintzilik, ehunka agian. Odol arrastoak zoruan. Usain hura… ez dut inoiz ahaztuko. Botaka egin nuen eta korrika atera nintzen. Bilobak amari esan zion beste erretratu batzuk marrazteko eredu berriak erakutsi zizkidala.

Isilik geratu zen, begiak itxi zituen.

—Handik gutxira, amak horrelako lehorgailu-kasko bat piztuta utzi zuen, konturatu gabe. Zirkuitulabur bat gertatu zen lo geundela. Ileapaindegia etxeko gela batean zegoen eta su hartu zuen. Etxe osoak. Oraindik su-garrak ikus ditzaket. Ama oihuka. Aita amari oihuka. Ni erdian, erretzen ari ziren tinteen usain sarkorra arnasten. Ba al dakizu zer izan zen nire gelatik salbatu nuena? Nire marrazkien karpeta. Bertan zegoen nire autoerretratu bat matademia hartan. Ez duzu sinetsiko…

—Zer.

—Ederra da, oso. Eta anbiziotsua. Boteretsua.

Ursula besarkatzeko gogo infinitua sentitu nuen.